

0.- SARRERA

Bedatsearekin batera, eta beharbada honen iristearen nahia beste urte batzuetan baino handiago izanda, Bidankozarteko zazpigarren zenbaki hau iristen da.

Atzean utzi dugun negua elurra aspertu arte ekarri du eta, euriarekin batera, azken urte erdian Bintze ugaltzan hainbat

buruhauste eta atsekabe eman du Bidankozen.

Batzuek oraindik beste elurte bat izango duguna ziurtatzen duten arren, badirudi eguraldia hobera doala, eguzkiak giroa epelduz doa eta, behintzat

hezetasunaren aldetik, perretxikoen falta ez dugula izango ematen du.

Beraz, suaren ondoan tarte gehiegi geratuko ez zaizkigulako itxaropenean, eta gehiago itxaron gabe, goazen Bidankozeri buruzko istoriotxoaren beste sorta batekin.

1.- HISTORIA APURRAK - ELIZAKO PROZESU BAT 1763AN

Iraganean, eliza boterearen zutabeetako bat zenean, eskumen propioa zuen elizari zuzenean eragiten zien auziez eramateko, baina moralaren inguruko zenbait afera barnean hartzen zituen ere.

Kasuak kasu, 1763an, duela 250 urte, Bidankozeko elizgizon baten inguruko prozesu bat dago. Gizon honen nahia garai horretan legearen arabera bateraezinak ziren bi kargu bere gain hartzea izan zen. Zoritxarrez, gai hau ederki asko sar liteke gaur egungo egoeran. Badirudi 250 urte ez direla ezer, gauza batzuk ez baitira inoiz aldatzen.

Hizpide dugun gaiak, auzitan jarri zituen Eliza-Kabildoak (hau da, garai horietan 8 karguez osatuta, ez gehiago ez gutxiago) eta Kabildo Sekularra (alkate eta zinegotziak, aiza-bulgua) batetik, eta On Matias Miguel de Hualde (*Diego*) bestetik, noren abizena eta bizi zen garaiari begira, ziurrenik Bidankozen botereko elitea izan zen Hualdetarren sendiarena izango zen.

Beste egunen batean sendi horri eskaini beharko dizkiot lerro batzuk.

Aipatutako On Matias Miguel de Hualde adingabekoen klerikoa zen (adingabeek kleriko bat bakarrik haientzat baldin bazuten, honek ulertarazten digu nola egon zitezkeen 8 eliza-kargu), eta gainera, Bidankozeko parrokiako sakristana. Arestian esandako 1763. urtean goratua izan zen (hau da, zuen kargua baino hobea zen beste eliza-kargu bat lortu zuen) "benefizio" batera (garaiko beste kargu bat) Bidankozeko elizan bertan, baina une hartan azken kargu hau bateraezina zen sakristautzarekin, baina On Matias Miguel ez zegoen sakristau karguari uko egiteko prest.

Horrela, hau guztia eliza-epaiketa batean amaitu zen, eta epaiak demandatutako Matias Miguel de Hualderi sakristiaren eta benefizioaren karguen artean hauta zezan adierazi zuen, eta honek, ergela ez zenez, benefizioa

aukeratu zuen. Karguaren izenak berak erakusten digu oso kargu txarra ezin zela izan.

Eta sakristiarako, Eliza-Kabildoak, herritarrek eta aiza-bulguak Bidankozeko Blas Ramón de Hualde jauna (*Diego*) proposatu zuten, Iratxeko Unibertsitatean ikasle izandakoa eta Errege-Auzitegiaren abokatu ibilitakoa, eta berari esleitu zioten.

Azkenean, nola edo hala, kargua Bidankozeko beste Hualdetar batentzat, eta prozesuaren laburpenak ez dioen arren, azkeneko hau, Blas Ramon, Matias Miguelen anairik gazteena zen. Ba hori, Hualdetarren klana, hurrengo baterako utziko duguna.

Gaian sakontzen animatuko zen norbait balego, prozesuak hurrengo erreferentzia hau dauka Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan: Secr. Villava, C/2195 - N° 25.

2.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - BEGETALAK

Oraingoan Bidankozen hainbat landare izendatzeko hitzez arituko gara:

LOREAK edo LANDAREAK

Ababol: Mitxoleta;

Agozo: Anbulu;

Axenes: Aihenzuriko kimuak;

Axun: Axun;

Basatxintxila o **Vecilla:** Txilina;

Bizko: Lore berde eta oso fruitu txikiak ematen dituen zuhaixka, pinuen artean hazten dena eta behieki asko gustatzen zaie (mihura);

Falaguera: Iratzea;

Goldarrón o **gromadas:** Bolomaga, sustrai sakonetako belarra, sare itxurarekin eta zurtoin arantzaduna;

Hilauri: Elorri-triska bezalako landarea;

Kaskabola: Txilintxo itxura duen loretxoa; hiru atzez hartuta eta eskuaren aurka kolpatuta, lehertu egiten da;

Lapa: Kaparrondo;

Lilimaio: Loretxo horia, txilintxo itxurarekin, usaintsua eta zurtoin luze batekin; apirilaren eta maiatzaren loratzen da, urtea euritsua baldin bada;

Menda: Menda;

Ollaga: Elorri-triska;

Pierdepan: Galsoroak leporaino betetzen dituen lore horia, garia baino arruntagoa;

ZUHAITZAK edo ZUHAIKAK

Astegar: Astigar;

Cardonera: Gorosti;

Fragino: Lizar;

Ginebro: Ipuru;

Gurrillón: Elorri zuri;

Magardera: Arkakarats;

Sabuko: Intsusa;

Xarga: Sasi;

Zakarda: Pago gaztea;

FRUITUAK

Artazi: Artearen ezkurra;

Magalla: Pagoaren fruitua;

Magarda: Arkakaratsaren fruitua;

Mispola: Mizpira;

Pinotxo: Pinaburua;

Pipín: Ezpelaren fruitua;

Xagarko: Sagarmina;

Berriz ere, eskainitako beste edozein hitza ongietorria izango da.


3.- HEMEROTEKA - BIDANKOZEKO IHESLARI BAT

Oraingo honetan 1913ko apirilaren 22ko *El Eco de Navarra* egunkariko albiste bat aukeratu dut, honela zihoen:

Beste era batean esanda, hainbat mutil soldaduskara joateko deituak izan ziren (beno, esan beharra dago ziurrenik Maroko [Rif-eko Gerra] izanen zela euren norakoa eta hori haientzat ez zela erabakia zuten, eta beste irtenbiderik ez zuten, deialdiari ez zioten jaramonik egin eta horregatik, iheslari deklaratu zituzten. Hortaz, azken finean, intsumisoak, baina mende bat lehenagokoak.

Albistean ez da ez xehetasun ezta izenik ere aipatzen, baina Aldizkari Ofiziala kontsultatuz, Bidankozen *Calderero* etxeko Elías Calderero Sanz gaztea iheslari deklaratu zutela jakin dut, halaberrez, Bidankozera karabinero gisa heldutako Jose Caldereroren semea zena,

gerora bere deitura etxearen izena eman zuena.



Alejandra Salvoch Jimeno (*Calderero / Elizalde*) andrearen testigantzan oinarrituz eta Argentinatik etorritako bidaiarien erregistroa begiratuta, antza denez, Elías Calderero, ez dakigu soldaduska ekiditeko edo bizimodua ateratzeko edota 14 urte lehenago Argentinara emigratu omen zuen

Paulinok, bere anaiak, hots egin ziolako, kontua da 1912ko bedatsean Argentinara emigratu zuela. Buenos Airesera 1912ko maiatzaren 2an heldu zen eta bere ogibidea "berger" zela azalduz (artzain; horrela agertzen da Bordelen ontziratu zelako eta *berger*rek frantsesez artzain esan nahi du). Buenos Airesera iristerakoan Eliasen adina (29) ez dator bat garai hartan izan beharko zuenarekin (19 edo 20), baina litekeena da transkripzio akats bat besterik ez izatea (29 beharrean, 19).

Azkenik, zalantza bakarra gelditzen zaigu, herri osoa emigratu zuelako jakitun zen edota non zegoen ez zekien. Baina kontua da Eliasek eliza-matrikuletan 1914 urtera arte agertzen jarraitu zuela.

Laburbilduz, horixe, beste garai batzuk zirela, ezberdinak... edota agian ez horrenbeste.

4.- TOPONIMIA - GAZTELUZARRA

Gaurkoan *Gazteluzarra* leku-izenari buruz arituko gara. Horrela, eta baita *Gazteluzarra Haitzak* deitzen zaio *Elizarenako* hegoaldean dagoen eremuari. Igari eta Bidankoze lotzen dituen errepidetik, *Gazteluzarren* parean eta Burgirantz begiraturaz, erraz ikus daiteke eremu hau. Ikustatzen den edozein puntutatik, *Gazteluzarra* harrizko talaia baten gisa azaltzen da, eta ezaugarri hori izango zen, hain zuzen ere, bere izena sortu zuena.

Kasu honetan toponimoaren etimologiak ez du inolako zalantzarik azaltzen: *gaztelua* + *zarra* = *Gazteluzarra*.

Bidankozeko kasuan, toki honi *Gazteluzarra* deitu izanak herrian bertan dagoen beste leku izen batekin (beste batean hitz egingo dugu honi buruz) harremana izan dezake, eta izen hori *Gaztelua* da, erkaketa eginez gero hura gaztelu berritza har genezake.

Errozkari eta Zaraitzun hainbat *Gazteluzarra* eta *Gazteluzarra* aurki daitezke, guztiak mendi tontorretan daude eta haien artean begi-lerroz lotuta daude. Iñaki Sagredok *Vascones: poblamiento defensivo en el Pirineo* (Pamiela, 2011) liburuan azaltzen duen moduan, honek

zonaldeko herrien artean babes-antolakuntza zegoela esan nahi du. Esate baterako, Bidankozeko *Gazteluzarratik* Bintze ugaltxako ibar guztia begiz kontrolatzeaz gain, Igari eta Burgiko *Gazteluzarrekin* ere kontaktua zegoen, eta arrisku egoera baten aurrean, hurbileko *Gazteluzarrei* abisua, ziurrenik sua erabiliz, agudo emateko aukera ematen zien.



Honez gain, litekeena da unerren batean *Gazteluzarreko* gaztelua eta herriko *Gaztelua* garaikide izatea, izan ere, azken honen kokapen zehatzaren arabera, bion arteko ikus harremana eduki ahal izan zuten.

Nola edo hala, hauek guztiak susmoak besterik ez dira, alde batetik, ez bata ez

bestea aipatzen duen dokumenturik ez baitago (honek ez du esan nahi ez zirela egon, baizik eta gordetzen den dokumentazioa baino antzinagokoa izan zirela). Eta beste alde batetik, gaur egun arte, bi eremu horietan babes eraikinik egon izanaren aztarna aipagarririk ez da agertu. Izan ere, 2012 urte amaieran aipatutako Iñaki Sagredok zuzenduriko talde batek *Gazteluzarran* egin zuten lehenengo indusketa arkeologikoak ez zuten ezer lortu.

Bukatzeke, eta *Gazteluzarrari* buruz talde oroimenak dioena jasoz, Crisanto Pasquel Ornatetik (*Paske*) gaztelu horretan mairuen inbasioaren garaian, bidankoztarrak indartsu egin zirela esaten zuten. Kondaira bat ere aipatzen zuten: *Santxena* etxeko aberastasuna *Gazteluzarran* aurkitutako urrezko zekor bati esker zela.

Ildo berean, Evaristo Urzainqui Hualdek (*Lengorna*) bere ama ume zelarrik, *Gazteluzarreko* kobazulo txiki batean harrizko almeriz bat aurkitu zuela baieztatzen du eta, ziurrenik, *Navarro* etxean geldituko zela bera *Lengorna* etxera ezkondu zenean.

5.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - ANARNA

Oraingo honetan *Iribarna* auzora goaz, gaur egun ez dagoen etxe batera, *Anarna* etxera, hain zuzen ere. Etxe hura 1973ko abenduaren 3an *Landa* etxean sortutako sutearen ondorioz desagertu zen, eta gaur egun orubea besterik ez dago.

Azkeneko hamarkadetan etxe haren bilakaera gaur egungo *Azkie* etxeari (antzinako *Fuertes* etxea) loturik egon da, biak orain dela 40 urte inguru Donostiako Antigua auzoko San Sebastian Martir parrokiak erosi baitzituen. Geroago, duela 10 bat urte antzinako *Fuertes* etxea eta *Anarna* etxeko orubea Orioko Iñaki Azkue Larrañagak erosi zituen.

XX. mendeko 40. hamarkadaz geroztik *Anarna* etxea ez zen etxebizitza. Hamarkada hartan José María Sanz Jimenok (*Danielna / José María*) erosi zuen *José María* etxean zuen dendako salgaiak gordetzeko, biltegi moduan erabiltzeko. Geroago, errepideko obrak egin ziren, eta etxerako zuzeneko sarbidea lortu zuenez, ez zuen bere beharrik izan. Orduan, Cándido Artuch Jimenok (*Largotena / Orna*) hartu zuen aziendarentzako ukiulu gisa erabiltzeko.

Honaino etxearen joan-etorriak jatorrizko familia joan zenetik. Familia haren azkeneko bizilagunak Salvoch Artuch anai-arrebak izan ziren, Tomás Salvoch Hualde (*Maisterra*) eta Petra Manuela Modesta Artuch Urzainquiren (*Anarna*) semeak.



Ordutik atzera egitean askoz

korapilatsua goa suertatzen da jatorrizko familiaren aurrekoei jarraitzea. Manuela Modesta (hala zuen ponte-izena, nahiz eta denek Petra deitu), Lorenzo Ramón Artuch Pérez (seguruenik *Bomba* etxekoa) eta María Urzainquiren (Urzainki herrikoa) alaba zen. Beraz, gurasoak ez ziren etxekoak. Kontua da María Lorenzoren bigarren emaztea izan zela. Lehenengoa, Antonia Mainz Urzainqui -

Anarna etxekoa zena-, 1855ean hil zen, kolera izurritan.

Horiek alde batera utzita, etxe-izenaren etimologiari dagokionez, argi omen dago bere esanahia "Anaren etxea" dela. Antonia Mainz Urzainquiren arbasoen arrastoen bila egiaztatu dugu bere aitaldeko herenaitonaren ama Ana María Glaría izeneko bat izan zela; horren ama, Ana María Sanz; eta azken horren amaginarreba Ana Sanz. Ezin dugu zehaztu norengandik dator kion izena, baina argi omen dago hori dela jatorria. Eta 1685 eta 1715 artean kokatu daiteke, izena emango zion pertsonaren arabera.

Etxaurreko argazkirik ezean (baten batean saiheska zerbait antzematen da), lerro hauen artean bi txertatu ditugu: batean, *Anarna* etxeko leihotako batena, ondoren Erronkariko etxe baterako berrerabili zirenak; eta bestean, sarrerako ateburuko harrian zegoen murrakia, nahiko hondatua. Urzainqui Salvoch (*Lengorna*) anaien arabera, harri hori ere Torralba del Ríoiko etxe bat egiteko berrerabili zen.

6.- BIDANKOZE BIBLIOGRAFIA - "CUANDO ÉRAMOS NAVARROS"

Gazteluzarra toponimoa aritzean aipatu dugun liburuarekin lotuta, 2012an Iñaki Sagredo "Cuando éramos navarros" (Pamiela, 2012) argitaratu zuen, gazteluei buruz idatzitako serieko beste liburu bat. Bertan Nafarroa erresuma izan zeneko historia aztertzen du, mugen defentsan eta lurraldeen galeretan oinarrituta.

Kontua da, lehenengo kapituluan, baskoiek erresuma sortu arte jarraitutako bidean azaltzen duena (hasiera batean Iruñeko erresuma, gero


Nafarroakoa), gure herriari hainbat aipu aurki dezakegu: Hasteko Gazteluzarra zein El Castillo agertzen dira Auiñamendietako baskoien defentsarako adibide, indarrean jartzen lehenengotik zelatatu ahal zen eremua.

Aurrerago, Imperio Erromatarraren gainbehera seinatzen du Bidankozeko jatorri posibleen artean. Horrela, inbasio barbarek sortutako ziurtasunik ezaren aurrean, *villa* erromatarrak biztanleek Auiñamendietan babeslekua bilatuko zuten, bide nagusietatik aparte

dauden goi-ordokietan edo aran estuetan.

Azkenik, kanpaina militar arabiar bateko kronikari aipua, Abd Al Rahman III. ekoa, 924. urtekoa. Idazkiak dioenez, *Zarrakaztelu eta Galipentzutik igaro ondoren, Auiñamendietako herrixka baterantzako bidea hartu zuten, Baskhunsia izeneko, jatorrizko kristauaren sorteria*. Garai hartan Bidankoze existitzen zen dagoeneko eta, antzekotasun fonetikoarengatik, egilearen ustean Baskhunsia herrixka gure Bidankoze izan ahalko zen, edo Nabaskoze baita ere, edota gaur egunera irauin ez duen herrixka bat.

Liburu interesgarri bat, irakurtzen merezi duena.



7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK

Mariano Mendigatxaren (*Mendigatxa*) gutunekin jarraituz, 1903ko azaroaren 29ko eskutitzean egurrari buruzko monografia bat egiten du, Bidankozen hazten diren zuhaitz eta zuhaixkei buruz, egur mota desberdinei ematen zieten erabilera, ze fruitu ematen duten, eta abar.

Nahiz eta *Mendigatxa* beti abere-etxea izan dela pentsatzen ohi dugun arren, ikusi dezakegu ez dela "*betidaniko kontua*". Hortaz, litekeena da, ardiak *Mendigatxa* etxera iritsi zirela Francisco Mainzekin (Urzainki), Teófila Mainzekin ezkondu zena, Marianoren iloba. Marianoren alaba, Ramona Ines Mendigatxaren etxean geratu zena, Juan Gregorio Mainzekin (*Santxena*) ezkondu egin zen eta izan zitekeen honek ezkonari gisa abereak eramanez izatea, *Santxena* etxean abere asko baitzeuden (1883an ezkondu zirenean).

Baina, badirudi gutunetan aipatzen diren gauza batzuk aukera hau alde batera uzten dutela. Alde batetik, *Bidankozarteko* aurreko alean, hemeroteka atalean agerturiko uholdeari buruz hitz egiten duen gutunean, Marianok esaten du bere etxean egurra galtzeaz libratu zirela aurreko egunean saldu zutelako, eta garai hartarako, alabak 20 urte zeraman ezkondua *Santxenakoarekin*. Beste aldetik, ardiei ilea mozteari, gaztaren egiteari eta abarri buruz aritzen duen gutunean, Marianok artzainei buruz

hirugarren pertsonan hitz egiten du, beraz, alde batera uzten digu inoiz artzain izan zitekeela.

Orain bai, zuhaitzei buruz aritzean, ler, ize, pago, haritz eta artea nagusi direla aipatzen du, lehenengoa bereiziki ugari izanda.



Lerrari buruz, bi material dituela esaten du: *Korala* (lerraren barnean, bika egiteko erabiltzen zena eta, erretxina asko baldin bazuen argia egiteko, etxean nahiz kalean, izan ere, asko irauten zuen) eta zuria (azal ondoan). Ler *zirkulazio* nabaria zegoela gehitzen du, hazita daudenean, enborrak egin eta errekan behera eramaten zituzten salmenta lekuetaraino. Lerraren egurra oso ona da bai etxeak eraikitzeke bai edozein eraikinerako, su gozoa ematen du eta hazten direnean pinaziak ematen dituzte, abereentzako primerako elikagaia.

Izeiarekin jarraitzen du esanez lerra baino handiagoa dela, hala ere ez hain ugaria. Materiala zakarragoa da baina

bustirik gordetzen bada, ler-korala bezainbeste iraun dezakeela dio eta, bere ustez, moztu bezain laster uretan sartzen bada ez da sekulan ustelduko. Gainera, etxe edo txabola bat eraikitzeke, Bidankoztarrek izeia lerra baino nahiago dutela adierazten du. Pinaziak ere ematen ditu eta izei gazteek kokxor batzuk dituzte

permentina (trementina) izeneko sustantzia batez beterik, sendagai bezala erabiltzen dena. Izeiaren egurra lerrarena baino txarragoa da sua egiteko.

Pagoei dagokienez, izeia baino gutxiago daudela adierazten du eta pagadi asko egon arren, pago gutxi daude zutoinak egiteko. Pagoen

egurrekin

itsasorako arraunak, palak, uztaiak, eta gauza asko ekoizten dira. Su-egur bezala erabiltzerakoan lerra baino askoz hobeagoa dela adierazten du Marianok.

Orain arte azaldu den guztia irakurtzean, nabarmentzen da gutuna oso mamitsua dela, eta askoz gehiago geratzen denez, puntu honetan geldituko gara hurrengo alean beste zuhaitz eta zuhaixka batzuekin jarraitzeko.

Ziur aski, nahiz eta gazte gehiengoei gutun hauetan aipatzen dena berria suertatu, zaharrenei oroitzapen ugari etorriko zaizkie burura, basoa bizibide zen garaiko oroitzapenak.

8.- BUKAERA

Eta hemen bukatzen da Bidankozarteko zarpigarren zenbaki hau, zuen gustukoa izatea espero dudana edo, behintzat, zuen arreta harrapatu duen zerbait izan duena.

Bai Bidankozeko jatorri posiblearengatik, bai bere antzinako gazteluarengatik, bai mendiak ematen duenarengatik, jendearen edo etxeen joan-etorriarengatik edo aipatutako pasadizoarengatik, ziur zerbait bitxia aurkitu duzuela.

Eta zenbaki honi dagokiona, hauxe izan da dena. Bidankozarterekiko hurrengo hitzordua, uda aldera, Endone Petrin.

Agur bero bat eta hurrengo arte.